



Bigarren Hizkuntzaren Ikaste-prozesuaren Ikerketarako Ingurune Adimenduna

Artikulu honetan Adimen Artifiziala, Linguistika Konputazionala eta Psikolinguistikaren arteko lan baten berri emango dugu. UPV/EHUko Ikerkuntzarako Errektoreordetzak 1994 eta 1995. urteetan finantzaturako bi ikerkuntza-proiekturen barrukoa da lana. Proiektuak UPV/EHUko Lengoia eta Sistema Informatikoak sailean lan egiten duen IXA taldea eta ILAZKI euskaltegiaren arteko elkarlanari esker burutu ziren. Proiektuen izenburua ondokoa dugu: *Bigarren hizkuntzaren Ikaste-prozesuaren Ikerketarako Sistema Adimenduna*. Proiektu hauetan epe luzera begira genuen helburua hau zen: hizkuntza ikaste-prozesua aztertze-sistema adimenduna sortzea. Sistemak ikaslearen tarte-hizkuntzaren errepresentazioa (kompetentzia gramatikala) eta tarte-hizkuntza horren jasotze-prozesua aztertze-sistema balioko luke.

Gaur egun, aipaturako proiektuetatik bost urte pasa ondoren, bigarren hizkuntza (H2) ikaste-prozesua ikertze-ko ingurunea diseinatu dugu. Hiru sistema desberdinez osatua da:

- Batek, psikolinguistikaren laguntza, ikasle jakin baten tarte-hizkuntza modelizatzeaz gain, ikaskuntza-maila berean dagoen ikasle-taldearen tarte-hizkuntza ere aztertzen du.
- Bigarrenak, aurrekoak sortutako tarte-hizkuntza-ereduak erabiliz, irakasleari laguntza eskaintzen dio, ikasleak erabiltzen dituen egitura linguistikoen diagnostia egiteko.
- Hirugarrena idazte-prozesuan zehar ikasleari laguntza ematen dion lagun-

tzaile interaktiboa da, aurreko biek sortutako ikaskuntza-maila baterako tarte-hizkuntza-ereduak nahiz diagnostiko informazioa erabiltzen duelarik.

Epe luzerako helburua handizalea zen arren, horretara eraman gintzaketen epe motzeko helburuak zehaztu genituen aipaturako bi proiektuetan. Ondoren, proiektu jakin haietan egin genuena azalduko dugu laburki.

Helburua ILAZKI euskaltegiaren 9-10, 10-11 eta EGA mailetan zeuden zenbait ikaslearen tarte-hizkuntzaren egitura linguistikoko batzuk aztertzea izan zen. Horretarako, ikasturtean zehar euskaltegian jarraipen minimoa izan zuten 15 ikasle desberdin hautatu genituen. Gero, egitura linguistikoko batzuek aukeratu genituen. Ondoren, egitura horien erabilera desberdinak landu genituen ikasleek idatzitako idazlanetan.

Eta, azkenik, egitura horiek erabiltzeko ikasleek zituzten arazoak landu genituen. Besteak beste, ikasle bakoitzaren ikaste-estrategiak izan genituen irizpide.

Azterketa hau bi irakasleek eskuz egin bazuten ere, laguntza erdiautomatikoa ere izan zuten. Egitura linguistikoko ondoko irizpideen arabera hautatu genituen: lehenengo, aipaturako hiru mailatan irakasleen ustez arazotsu ziren egitura linguistikoen zerrenda egin genuen -arazotsu diogunean, bai H2rekiko "errore" direnak, bai maila

horietan gutxi asimilatuta daudenak sartzen dira (adibidez, *eta* juntagailua gehiegitan erabili, *hala ere*, *ordea*, *-arren* eta honelako ordez)-; eta, gero, informatikak gaur egun dituen mugak direla eta, hautaturakoaren azpimultzo bat hartu genuen aztergai.

Horrekin batera irakasleen lana jasotzeko datu-basea implementatu genuen. Honez gain, ikasleek testuek osaturako corpusa antolatzen hasi ginen. Corpusaren bidez, maila bakoitzean ikasleek erabiltzen dituzten egitura linguistikoko aztertu eta portzentaiak (automatikoki kasu batzuetan, eta erdiautomatikoki besteetan) ateratzeko tresna informatikoak landu genituen proiektu haien ondorioz.



- ✗ **Proiektuaren izenburua:** Bigarren hizkuntzaren ikaste-prozesuaren Ikerketarako Sistema Adimenduna.
- ✗ **Helburua:** Ikaste-prozesua aztertze-sistema linguistikoko definitzea eta implementatzea.
- ✗ **Finantzazioa:** EHUko Ikerkuntzarako Errektoreordetza
- ✗ **Zuzendaria:** Arantza Díaz de Ilarraza
- ✗ **Ikerketa-taldea:** EHU: Arantza Díaz de Ilarraza, Montse Maritxalar eta Iñaki Pikabea (psikologoa eta pedagogoa)
ILAZKI: Aurkene Andueza, Josune Martirena.
- ✗ **Departamentua:** Lengoia eta Sistema Informatikoak
- ✗ **Zentroa:** Informatika Fakultatea